



Ane Makaia - Angela Escondrillas
Aixerrota BHI,15-16

Aurkibidea

• UNAI ELORRIAGA	3
• SARRERA	3
• <i>IAZKO HEZURRAK</i>	
▶ KOKAPENA	4
▶ GAIA	4
▶ ARGUMENTUA	4
▶ ISTORIOA	4
▶ PERTSONAIK	5
▶ EGITURAKETA	5
▶ BALIABIDEAK	6
• IRITZIA	6
• BIBLIOGRAFIA - WEBGRAFIA	7

• Unai Elorriaga

Unai Elorriaga López de Letona (Bilbo, Bizkaia, 1973ko otsailaren 14a) euskal idazlea eta itzultzailea da.

Idazle algortar (Getxo Bizkaia) hau Euskal Filologian lizentziatua da. Bost eleberri kaleratu ditu gaur arte, eta lehenengoarekin ja arrakasta eta ospea lortu zituen, 28 urterekin.



Kaleratu zuen lehenengo eleberria *SPrako tranbia* izan zen 2001. urtean. Beti bizi izan da Algortan eta Deustuko unibertsitatean egin zituen Euskal Filologia ikasketak. Urte batzuk eman zituen euskara eta literatura irakasle gisa Labayru Institutuan eta zuzentzaile, ikertzaile eta itzultzaile lanetan aritu zen. Berak eginak ditu Agustín Fernández Pazen El laboratorio del doctor Nogueira eta Marilar Aleixandreren Sin futuro lanen itzulpenak. Gainera, Giltza-Edebé argitaletxean testu-liburuak sortzen eta itzultzen egon zen.

2003. urtetik literaturan bakarrik jarduten da. Hiru eleberri kaleratu ditu, umeentzako ipuin luze bat, euskal literaturari buruzko testu-liburu bat eta hainbat artikulu idatzi ditu Berria, El Mundo, El País eta *Idatz & Mintz* literaturako aldizkari zein egunkarietan. Unai Elorriagaren nobelak hamar bat hizkuntzatan argitaratu dira eta munduko zenbait unibertsitatetan eman ditu hitzaldiak.

Unai Elorriaga 90eko hamarkadaren amaiera horretan plazara irten ziren Bilbo inguruko idazle berrien belaunaldikoa da. Elorriagaren lehenengo liburua literatur saiakera izan bazen ere, Literatur ideia batzuk (Labayru, 2001), literatura sortzeko ibilbide sendo bati ekin zion berehala. Bost eleberri kaleratu ditu: *SPrako tranbia* (2001, Elkar), *Van't Hoffen ilea* (2003, Elkar), *Vredaman* (2005, Elkar), *Londres kartoizkoa da* (2009, Elkar) eta *Iazko hezurak* (2014, Susa), zeinetan mundu literario berezia eta konplexua eraikitzen duen. Kritiken arabera, haren literatur moldea inor axolagabe uzten ez duen horretakoa izatera iritsi da.

Era berean, *SPrako tranbia* eleberriarekin 2002ko Espainiako Narratiba Sari Nazionala irabazi izanak, eta egilea bera bere lan guztien gaztelaniarako itzultzailea izateak, gure literaturaren esparruaren mugak gainditzeko bidean jarri dute Elorriaga, oso denbora laburrean. Horren adibide gisa, estatuko

prentsan ere egin izan dituen kolaborazio ugariak, El País, El Mundo eta La Vanguardia egunkarietan alegia.

Horregatik guztiagatik, esan dezakegu Unai Elorriaga euskal irakurleentzat nahiz kanpoko askorentzat idazle ezagun bihurtu dela.

▶ Sarrera

Iazko hezurrak Unai Elorriagak idatzitako eleberria da, lehen aldiz 2014 urtean argitaratu zena. Eleberriak, Irene Arrias du protagonista, Algortan jaioa 1971n. Irene kezkaz eta obsesioz betea bizi da, etengabe eraso, tortura, hilketa, exekuzioak, krimenak eta gerrak hurbil sentitzen ditu bere inguruan. Protagonista bere kabuz hasiko da gertaera horien gainean irakurtzen eta ikertzen, munduko tragedia oro ezagutuz eta haren bizitzaren parte eginez.

Unai Elorriagaren bosgarren nobela honek krudeltasunari eta indarkeriari erreparatzen die; denboraren joanean munduko zenbait herrialdeetan izan diren indarkeria-momentu desberdinak jasotzen ditu (Ruandako genozidioa, Euskal Herrian ETaren jarduna...). Nobelak, beraz, bi plano ditu: hari narratiboa, Irene Arriasen bilakaera pertsonalaren kronologia oinarri hartuta eta Arriasen esperientziekin tartekatuta, munduan gertatutako sarraskiak, torturak, hilketak, hurbilekoak zein nazioartekoak.

Idazleak episodio ugari narratzen ditu, baladak, kronikak, bideoak eta idazle askoren esperientziak: Tolkien, Ambrose Bierce, Faulkner, Lauaxeta, besteak beste. Hain da handia protagonistak gai hauen inguruan egiten duen erreparoa, non lehenengo pertsonan bortizkeria bizi izango duen.

▶ Kokapena

Iazko hezurrak, Irene Arrias protagonista jaiotzen denetik, hau da, 70eko hamarkadaren hasieratik, XX. mendearen hasierara arte gertatzen da. Nahiz eta hari narratibo nagusia protagonistaren bizitza den, Algortan eta Bilbon kokatutakoa, mundu osoan zehar gertatutako indarkeria jazoerak kontatzen ditu idazleak: Errusiako Iraultza, Ruandako genozidioa, Bagdadeko bonbardaketak, etab.

Istoriaa Irene 40 urte inguru betetzean amaitzen da, protagonista indarkeriaren biktima bihurtzen baita.

▶ Gaia

Irene Arrias bere bizitza, munduan zeharreko indarkeria, krimen eta biolentzia kasuekin konparatuta.

▶ Argumentua

Irene Arriasek, jaiotzen denetik 70eko hamarkadaren hasieran, munduan gertatutako indarkeriak inguruan izango ditu ditu, Ruandako genozidioa eta ETA bereziki. Bere bizitzako gertakizunekin batera, narrazio labur mordoa eginten ditu munduko beste gertakari biolentoekin lotzeko. Hasieran, haren haurtzaroa eta bere familiaren jatorria. Ondoren, gaztaroa, zeinetan bere senarra ezagutuko duen. Horren haritik, helduaroa eta amatasuna; amaieran, izaeraren ondorioz indarkeriaren biktima bihurtzen da.

▶ Istorioa

Gertakizun nagusiak

Hari narratibo nagusia Irene Arriasen bizitza da, kronologikoki kontatua eta lau ataletan banatuta, baina tarteka, han eta hemen, munduan gertatutako indarkeria jazoera nabarmenak daude; azken mendeko bortizkeria une gorenak irudikatu ditu: Errusiako Iraultza, 36ko Gerra, Bigarren Mundu Gerra, Gaddafi eta Saddam Husseinen amaiera, Bagdadeko bonbardaketak eta, batez ere, ETAREN indarkeria eta Ruandako genozidioa. Hori dela bide, hari nagusiarekin batera, idazleak hainbat narrazio labur sartu ditu liburu honetan, indarkeriarekin lotuak.

Halaber, fokua, Euskal Herrian eta Ruandan ipini du idazleak.

1. Algortako indarkeria gertakizunak azaltzen ditu. Bertan hil zuten espainiar poliziek Txikia, ETAKo buruzagia eta bertan hil zituen ETAK Azaola eta Solaun, etakide izanak. Getxo Espainiako Estatuaren indarkeriaren monopolioaren primerako tokia dela aitortzen du autoreak. 1936ko Gerraren ondorioek eragin zuten ETA fenomenoaren agerpena, 1956. urtean, Francoren diktadura garaian, sortu zena. Gerra eta gerra ondorena, errepresioa, ikastolen sorrera eta garapena, ETA eta Guardia Zibilari buruzko gogoetak agertzen dira.

2. 1994. urtean, Ibon eta Irene ezkondu baino hamar urte lehenago, Ruandako genozidioa gertatu zen. Ruandan biztanleria bi tributan banatuta zegoen: hutuak (gehiengo) eta tutsiak (gutxiengoa). Hutuen eskuetan gobernu zegoela, hutuek tutsien sarraskia egiteko saialdia egin zuten, eta tutsien %75 akabatu zuten.

Gauzak horrela, ondorioztatu daiteke garrantzi handia izan zutela ETaren jardunak eta Ruandako genozidioak sortu zituzten ondorioak protagonis-tarengan. Bere inguruan gertatzen ziren indarkeria gertakizunek (ETA) bere bizitzan eragina izan zuten. Hala ere, Ruandako genozioa ez zuen hurbiletik ezagutu, baina hondamendia izugarrikoa izan zenez, biziki hunkitu zuen.

► Pertsonaiak

Irene Arrias da nobelako protagonista, Algortan jaioa 1971. urtean, Abel Arriasen eta Begoña Sasietaren alaba bakarra. Emakumea izan arren, Unai Elorriagaren alter ego gisa deskriba daiteke. Kezkaz eta obsesioz bizi da: eraso, tortura, hilketa, bortxa, atentatua, jazarpena, sarraskia, exekuzioa, krimena, gerra hurbil sentitzen ditu bere inguruan. Munduko gertakizun latzek Irene Arriasen jakinmina pizten dute. Gainera, indarkeriak konparatzeko ohitura hartzen du.

Protagonista bere kabuz hasiko da gertaera horien gainean irakurtzen eta ikertzen, munduko tragedia oro ezagutuz eta haren bizitzaren parte eginez. Nerabea zenetik, tragedia bizi izan du hurbiletik, ETaren jarduna Algortan presentzia handia izan zuelako: Eustakio Mendizabal Txikiaren eta Telesforo Monzonen hilketa, kasu. Hamar urte zituelarik, aita minbiziaz jota hil zen eta osaba urteak preso egon ostean, parkinson gaixotasunak hil zuen. Heriotzak dakartzan dolua txikitatik bizi izan zuen eta heldutasuna lortzeko bidea izan zen. Jaio zen une beretik, Irene Arrias indarkeriaren itzalpean bizi izan zen. Indarkeriaren inguruan egiten duen hausnarketa gertakari horien ondorioa izan zen, momentuko gertakari historiko-sozialak ulertzeko zergatia aurkitzeko nahia zuelako.

Deustuko Unibertsitatean ikasten du eta zenbait enpresatan lan egiten du. Lana dela medio, Ibon Sales Urizar ezagutzen du, 2004. urtean Ireneren senarra bihurtuko dena. Unibertsitatea amaitu bezain laster, bizi izan zuen gertakari batek haren bizitzan eragin handia izan zuen: kalean utzitako umezurtz bat ezagutu eta bere amaren etxera bizitzera eraman zuen. Umea gaixotasunak jota hil egiten da eta Irenek umearen galera pairatzen du. Eleberri osoan, gertakari

horren aurrean bizi izan zuen mina ezkutuan sufritzen du. Umearen oroitzapenak egonezina eragiten dio, baina ez du inorekin partekatzen. Geroxeago, nahiz eta bere alaba propioa izan, umezurtzaren ama izango balitz bezala sentitzen da. Hala ere, bere senarrak ez du gertakari horren berri: bertan ikus daiteke bikotekidearen arteko konfiantza falta eta Irene Arriasen izaera ezagutu daiteke. Hain da zaila Irenerentzat bizipen hori gainditzea, non kapituluro erreferentzia egiten dion.

Irenek munduko ezbeharrei buruz azaltzen duen interesa, bizitzen dituen tragedietan du oinarria. Bere bizitza ez da erraza izan, horregatik beste herrialde batzuetako gertakarien aurrean enpatia erakusten du. Hori dela eta, garrantzi handia ematen die kanpoko gertakariei, haren bizipenen zergatia ulertu ahal izateko. Beste herrialdeetako erasoetan arreta handia hartzen du, asko hunkitzen dutelako.

Idazleak, eleberriari amaiera tragikoa eman nahi zionez, protagonista tortura lehenengo pertsonan bizitzen du, haren familia dela medio. Bortxak eta hark eragindako saminaren obsesioaz bizi da Irene Arrias, haietan du jarrita arreta eta haien ikuspegitik begiratzen du mundua, bortxak Arrias bera ere harrapatuko duen arte. Bortxaren arakatzailerak izatetik bortxaren biktima izaterainoko aldaketa gertatzen da.

Beraz, Ireneren momentu bitalak indarkeriak markatuak dira, munduko edozein bazterretan edonoren bizitza bezala. Ireneren istorioa, beraz, aitzakia baino ez da.

► Egituraketa

Iazko hezurrak nobela lau ataletan eraikita dago. Lehenengoan, protagonistaren haurtzaroa kontatzen da: aitaren heriotzak bere bizitzan sortzen dituen aldaketak eta bere familiaren jatorriari buruzko azalpenak dira nagusi. Bigarreanean, berriz, gaztaroa azaltzen da: unibertsitateko ikasketak, lan munduan hasiera eta Ibonen agerpena. Hirugarrenean, helduaroa eta amatasuna agertzen dira: ezkontza, alabaren jaiotza eta enpresa berrian lan egiten hastea. Azkenekoan, ordea, haren izaerak ondorio batzuk sortuko ditu: indarkeriaren biktima izango da. Eleberriari amaiera tragikoa eman dio Unai Elorriagak, beldurra eta misterioa direla medio.

Lau atal horien artean, zortzi narrazio aurkitu daitezke, tartekatuak. Ipuinok atzerriko egunkarietan aurkitu dituela dio egileak, indarkeria kasu bereziak agertzen direlako erabili dituela haren eleberrian. Unai Elorriagaren hitzetan, haria Ireneren bizitza da, eta tartean, espiral batzuen moduan, indarkeria-momentuak daude, gaia indartzeko.

► Baliabideak

Prosazko lana da hemen ageri zaiguna eta hirugarren pertsonan kontatua dagoen narrazioa, narratzaile orojakile tradizionala: gertatzen den guztia daki narratzaile honek, pertsonaien sentimenduak, gertaeren arrazoiak, gerora ere zer gertatuko den, etab. Baina narrazio bakarra izan ordez, bi ataletan bereiz daiteke. Alde batetik, trama nagusia kontatzen du, Irene Arriasen bizitza, haurtzarotik helduarora. Bestetik, molde askotako indarkerian girotutako narrazio laburrak tartekatzen ditu; horretarako, denboran saltoak egiten ditu etengabe.

Irakurtzeko konplikazio handirik ez duen eleberria da. Euskara ulergarria eta erraza da eta hiztegi premia handirik gabe irakurtzeko modukoa. Ordea, ez da edozein adinetarako ezta denbora-pasatzeko irakurketa, irakurlea estutasunera eramaten baitu.

Narratzailea tonu neutroan aurkezten da, liburuan zehar agertzen diren hainbat gatazkaren erdiguneko objetibotasunez jokaturik.

Elkarrizketak erabiltzen ditu protagonista beste pertsonaiekin komunikatzeko eta horrela bere izaera ezagutu dezakegu. Deskribapenak ugariak dira, batez ere eleberriaren hasieran eta gertakari bortitzak azalerazteko, hala nola, Ruandako Genozidioa eta ETAren jarduna.

Gaiak etengabe nahasten ditu baina antolatzaileekin eta denbora lokailuekin ondo antolatuta dagoenez gero, ez da istorioaren aria daltzen.

Hainbat hizkuntza eta euskalki erabiltzen dira; bizkaiera, euskara batua, gaztelania, inglesa, latina eta frantsesa.

Liburuaren titulua metafora bat da "Iazko hezurak" eta munduko indarkeria pasarteei erreferentzia egin dio, munduan betidanik gertatu diren ekintzei aipamenak egiteko.

Errepikapenak daude, liburuaren ideia nagusiak pasarte guztietan aurkitu daitezkeelako: ETAren jarduna Algortan; eta Ruandako genozidioa, mundu mailan eragin handia izan zuelako.

Lexikoa aberatsa da eta idazleak gaiari buruz ezagutza zabala duela nabari da gertakarien xehetasunei buruz gogoeta sakonak egiten dituelako.

• Iritzia

Unai Elorriagaren *Iazko hezurak* eleberria nahiko lazgarria dela esan daiteke. Liburua irakurle handiak direnei gusta dakieke, helduei bereziki, nahiko gertakizun biolento eta lazgarriak narratzen baitira. Aipagarriena da, gure ustez, Irenek duen obsesioa indarkeriazko gertakariekin. Azkenean, gertakizun zorigabe horiek Irenerengan eragin kaltegarriak izango baitituzte.

Nobelaren arabera, XX. mendearen bigarren erdialdean koka genezakeen protagonistaren bizitza, Algortan eta Bilbon gertatutakoa. Gezurra badirudi ere, nahiz eta indarkeria gehienak bere ingurutik oso urrun gertatzen diren, ETArekikoak Algortan bertan bizitzen ditu Irenek. Dena den, gerra edo hilketa gehienak Euskal Herritik urrun gertatzen direnez, erraz ahaztu dezakegu indarkeria gure gizartean dagoela ere.

Esan daiteke nobela honen helburu garrantzitsuenetariko bat irakurlea inguratzen duen munduan gertatzen diren gertakariez ohartaraztea dela. Unai Elorriagak oso ondo islatzen ditu kontakizun honetan indarkeriaren zioak: nahiz eta lehen pertsonan bizi ez dugun, guztiok haren biktima bihur gaitezke. Hori dela eta, enpatia oso garrantzitsua da. Irenek enpatia sentitzen du beste herrialdeetan sarraskiak sufritzen dituztenekin, haien istorioak bere egiten ditu.

Halaber, esan daiteke Unai Elorriagak hurbiltasuna ematen diela eguneroko gertakari latzei: arazoan aurreko kontzientzia maila handitu nahi du. Hau da, irakurleak horiei buruz hausnartzea nahi du: gure ekintzen ondorioak ulertzea eta gure elkartasun faltak dakartzan liskarrei buruz gogoeta egitea. Badirudi, pauso bat aurrera egiten dugunerako, jada hamaika atzera egin direla beste edonon. Hala ere, hori ez da zuzengabekeriak eta arazoan aurreko pasibotasuna erakusteko arrazoia, ezta hausnartzeari uzteko arrazoia.

Oro har, erraz irakur daitekeen liburua da, protagonistaren bizitza eta arazoak intrigaz eskaintzen baititu irakurlea. Dena den, indarkeriaren pasarteak nahiko korapilatsuak dira, hainbat pertsonaien eta lekuen erreferentziak egiten baitira. Hiztegiari dagokionez, ez dago zailtasunik.

Eleberri honetan, idazleak ez du batere kontzesiorik egiten irakurlea lasaitzeko: gertakari beldurgarriak eta zorigabekoak etengabe kontaktzen ditu eta ez du amaieran irtenbiderik zehazten. Amaiera bukatugabea da, ez baitu Irenek bizitzen duen gatazkaren konponbiderik aurkezten.

Gizakiek beste gizakien kontra buruturiko krimenen eta haien oroitzenaren gaineko irakurketa da. Erakargarria da oso, nahiz eta hainbat pasarte astunak diren irakurtzeko. Munduan gertatutako sarraskiak, torturak eta hilketak deskribatzean, datu gehiegi ematen ditu eta haien arteko loturak egiteko ohitura du. Hori dela bide, eleberria ulertzeko beharrezkoak zaizkigu

irakurleoi erreferentzia kulturalak eta historikoak, horiek jakitea. Horretaztik bereiz, beharrezkoa da etengabeko arreta izatea irakurketan, haria galtzea oso erraza delako. Munduko gertakarien datuen kopuruagatik, dela tonuaren aukeragatik, testu itxia gertatzen da eta irakurleari aukera handirik ez dio ematen gaiaren inguruan informazioa gehitzeko.

Beraz, liburu landua dela esan daiteke. Idazleak ondo ezagutzen ditu aurkezten dituen gaiak eta idazten gozatu egin duela nabaritzen da, ardura eta zorroztasuna behatu daitezkeelako.

• Bibliografia - Webgrafia

- *Iazko hezurrak*, Unai Elorriaga. Susa
- *Euskal Hiztegi Modernoa* hiztegia. Elhuyar
-
- ehu.eus/ehg/literatura/idazleak/?p=340
- Elhuyar hiztegia
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/il-hiztegitxoak/il-txokoa/iazko-hezurrak/iazko-hezurrak.pdf>
- Wikipedia entziklopedia askea
- zubitegia.armiarma.eus/?i=177
- xuxen.eus
- diariovasco.com/culturas/libros/201411/28/iazko-hezurrak-indarkeriarekin-obsesionatuta-20141128133248.html